

# Noaua !!



Aralartik  
Noaua! Txikira



Bidezko Merkataritza,  
karitatetik kalitatera



# Usurbilgo Nekazal Produktuak

*Txiñ Baseria Gure Herriko  
Ondare zaharra degunex*

*Baserriarrak - Nekazaria  
Natura Maitale denex*

*Zaindu ditragun birri bu diran  
Beraiek sortunakoez*

*Bai barazkiak fruitu ta okelez  
edo hauen barietatez*

*Gure Kultura ta elikaduran  
onbehar ta osasunez*



## EROSI



## HERRIKO



## NEKAZAL



## PRODUKTUAK

- ARBURU baseria. Tel.: 943 37 23 95  
**Behi esnea**
- ALTZONDO-ESNAOLA. Tel.: 943 36 10 50  
**Txekorrak**
- BERRITZAGOIENA baseria. Tel.: 943 37 28 28  
**Txekorrak**
- GALDAGORRI baseria. Tel.: 943 36 06 39  
**Txekorrak, piperra, babarruna, ilarra, baina**
- IARBE baseria. Tel.: 943 37 12 93  
**Behi esnea**
- IBARROLA TXIKI baseria. Tel.: 943 36 30 07  
**Behi esnea**
- IGARTZAZABAL baseria. Tel.: 943 37 00 63  
**Arkumeak eta ardi esnea**
- OLARRI baseria. Tel.: 943 37 09 63  
**Txekorrak**
- TROIA baseria. Tel.: 943 36 22 86  
**Behi esnea**
- ETXETXO baseria. Tel.: 943 37 24 05  
**Behi esnea eta loreak**
- OLAZOLA baserriak  
**Porrua, letxuga, ilarra, azalorea**
- URTINEA baseria. Tel.: 943 36 22 55  
**Loreak**
- ARANBURU negategia. Tel.: 943 36 64 60  
**Loreak eta landareak**
- LARTZANDIETA baseria. Tel.: 943 37 40 98  
**Oilaskoak eta ezitia**
- SARI baseria. Tel.: 943 36 60 61  
**Barazkiak**
- IRAXI LABAIEN. Tel.: 943 37 15 90  
**Ibarrako piperrak**
- OSTATU baseria. Tel.: 943 37 33 48  
**Barazkiak eta txerriak**

**Produktu hauek eros ditzakezu:**

- HARATEGIAK: Alkorta, Arubi, Esnaola, Ramon, Txapartegi, Imanol, Txapartegi
- BARAZKIAK: Alkorta, Chaper, Dia, Elza, Esnaola, F. Martin, Lourdes, Ujan-Arritaga

### ✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, baratzantza, haziak, patata, e.a.

### ✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa, zainzuriak, piperrak, babarrunak

### ✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana



**BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN**

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: [alkartasuna@fcae.org](mailto:alkartasuna@fcae.org)

# Txirrikitutik



Juanito Illaramendi "Txapelgorri", Udal fototeka  
1955, Kaleberria

Argazkian Kalezarko gazte kuadrila bat ageri zaigu. Oker handirik gabe, parranda zale amorratuak. Horren lekuko San Ferminetako jaietatik bueltan 1955. urtean egindako argazki hau. Iruñean, aspaldiko ohitura jarraituz, batxuri sortak erosi eta kolko-tik zintzilik eraman zituzten, norbait uxatu nahian edo... Iruñara, atzean ikusten dugun auto dotorean joan ziren; kuadrilako taxistarena nonbait. San Ferminetako giroaz gozatu ondoren, berriz ere herrira, berriz ere festara; izan ere Santixabelak oraindik jarraitzen baitzuten Usurbilen.

Eskerrak autoa Etxebeste kaleko Matistenea etxearen aldamenean aparkatu eta argazki dotore hau ateratzeko tartea hartu zuten. Urteak aurrera joan badira ere bertan agertzen direnak ezagunak zaizkigu oraindik: Kinitos (Lasarteko taxista), Antonio Aranzazistroke (Kuartroeneakoa), Agustin (Donostiakoa), Benito Aizpurua (Portaleakoa), Migel Arrastoa (Etxe-alakoa), Narciso Salsamendi (Zarraeneakoa), Bernardo Aizpurua (Errebal-txikikoa) eta Juanito Aizpurua (Portaleakoa).

ZALOA ARNAIZ  
fototeka\_usurbil@euskalerrria.org



**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo [fototeka\\_usurbil@euskalerrria.org](mailto:fototeka_usurbil@euskalerrria.org) e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

## Noaua!!

**Argitaratzailea :** Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: [noaua.k.e@euskalnet.net](mailto:noaua.k.e@euskalnet.net)

Web orria: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

**Kazetarien koordinatzailea :** Imanol Ubeda

**Kazetariak:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea:** Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea:** Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak:** Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zaloa Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika:** Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

## Aurkibidea

ZUTABEA, MIKEL USABIAGA \_\_\_\_\_ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. URR.

KONTZEJU TXIKIA \_\_\_\_\_ 10. URR.

Jendaurrean aurkeztua izango da arau  
subsidiarioen haserako dokumentua.

BIDEZKOA DEN MERKATARITZA \_\_\_\_\_ 12. URR.

PAILAZOAK DATOZ ABENDUAREN 22AN \_\_\_\_\_ 14. URR.

SANTA ZEZILI, EGUN ALAIENA \_\_\_\_\_ 15. URR.

ZUBELDIA PEÑAREN BAZKARIA \_\_\_\_\_ 16. URR.

ARALARTIK BERTSOAK NOAUA! TXIKIN \_\_\_\_\_ 18. URR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN \_\_\_\_\_ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Bidezko Merkataritzaren aldeko apostua urte osokoa da.



MIKEL USABIAGA

## Gizalegea

Noaua'n, 146. zenbakian, idazle-sena paregabea duen Eneko Harreguyren artikulua polita irakurri nuen. Bere luma zorrotzaz idatzitako lan horretan, Enekok, elkar-agurtze edo diosalari buruzko mezu interesgarria eskaini zigula iruditu zitzaidan. Nik behintzat, zentzu hori hartu nion. Halaber, berari zor diot nire idazlantxo honen sorrera.

Izan ere, gizartean orohar eta nabarmenago ikastolako ikasleengan, gero eta zabarrago gabiltzala sumatzen da diosalari dagokionean, eta zer esanik ez gainontzeko gizalegezko jokarretan. Honek guztiak, nire haurtzaroko pasarte hau ekarri dit gogora:

- Auzoko Fermi egun onak ematen al dizkiok eskolara bidean topatzen duanean?- esan zidan behin aitak. Zazpi urte edo izango nituen. Fermin, berriz, aitaren laguna zen.

- Ez - erantzun nion.

- Ba hori ez zegok ondo egina -esan zidan.

Hurrengo egunean, eskolara nindoala, berehalaxe bistaratu nuen Fermin. Soroan ari zen lanean. Bere parera iritsi baino lehenagoko 100 metroak motzegi egin zitzaizkidan. Zer eta nola esango diot Fermi esan beharreko guztia? Aita Txominek ongi leziatuta bidali ninduen arren, bere parera ailegatzean oso urduri jarri nintzen.

- Egun on Jainkoak dizula ! Ari zara lanean! Giro ona al dago? -esaldi guztiak batera bota nizkion, tartean erantzuteko inongo txandarik eman gabe.

- Baita hiri ere, motel! Eskolara al hoa?- erantzun zidan harritu xamarrik.

- Bai! - erantzun nion. Azkar eta presaka aurrera jarraitu nuen. Berak, ordea, geroxeago ere, zutik jarraitzen zuen niri begira, ezustekoa pasatu ezinik edo.

Hurrengo igandean, aita eta biak mezetatik etxerakoan topatu ziren eta, nonbait, Ferminek gertatutakoa kontatu egin zion. Bazkaltzerakoan, denen aurrean...

- Ikusten denez, lehengo egunean, Fermin oso gustura utzi huen hire diosalarekin - esan zidan aitak. Hori entzutean barne-poza sentitu nuen.

- Hori oso ondo zegok- jarraitu zuen.

Gustura geratu nintzen Ferminek aitari hori esan ziolako. Bestetik, satisfazioa eman zidan aita bera ere pozik gelditu zela ikusteak.

Pasarte honekin, ez nituzke nire familiako harremanak plazaratu nahi, baizik eta gurasook, (eta guraso ez direnek) seme-alaben gizabidean, asko egin dezakegula adieraztea da nire asmoa. Izan ere, gizalegezko portaera gureganatzen, txikitatik, etxean hasi beharreko prozesua baita. Gizalegearen transmisio jator hau, gure gaztetxoek, helduogandik jaso dezaketzen herentziarik baliotsuenetakoa da nire uste apalean.

Agur egin zaleak diren gaztetxoak topatzea gauza ederra da. Halaber, ingurukoak errespetuz tratatzea, ideiak arrazoiak defendatzea, hitz egokiz dotore komunikatzea, ingurugiroarekin arduraz jokatzeko, edo eta leku publikoetan gizatasunez dabilzan gaztetxoak ikustea (besteak beste) benetan gustagarria da. Adierazi dudana horrelaxe izan dadin, ordea, helduogandik eredu sana jasotzea beharrezkoa dute.

Duela gutxi egindako mendi-txango batean, hauxe aurpegi-ratu zidan ikasle batek, arrazoi handiz:

- Aizu! Zu beti, pipa azalak ez ditugula lurrera bota behar edo eta mendian ez dugula zakarrik bota behar esaten ari zara, baina zigarrokinak, kartutxo azalak edo ardo botilak, ez dira guk mendian utzitako zaborrak!

Hori entzun nuenean, heziketarik hoberena etsenpluaren bidez egiten den hura dela berretsi nuen.

Gai zabal hau bukatzeko, Gorrotxategi bertsolariak "Nor da euskaldun?" gaiari kantatu zion bertso famatu hura, "Nor da guraso?" gaiari bota izan balio, agian honelaxe kantatuko zukeen: Ez dakit, nik horrelaxe imajinatu dut behintzat.

Nor da guraso? Hau da galdera al dakit nola erantzun, seme-alabak gizabidean hezten dituna gau-ta egun. Arazoetan dabilzanean buru-ta bihotzez lagun, hitz egin nahian datozenean esaten duren entzun, guraso hauen ondorengoek izaten dute ezagun.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhua Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga



### Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55



### TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

## Ika-mika



## Kolore guzietako mundua

**E**uskal Herrian, eta 2002ko abenduaren 6, 7, eta 8an Donostian ospatuko dugun Herrien Eskubideen aldeko Nazioarteko Konferentziaren bidez, gure esperientziak beste herriekin alderatu nahi ditugu, guztiok barnera dezagun posiblea den beste mundu berri horren alde gabiltzala elkarlanean. Eskubide eta duintasunez berdinak diren herriz eta jendez osoturiko mosaikoaren alde elkarturik gaude.

## Euskal Herria, Mosaikoaren osagai

Mundu uniformeari aurre egiteko, euskaldunon lehen zereginena Euskal Herria herri ukatua izatetik, eskubideren subjektu izatera eramatea da. Herriei dagokie eskubideak gauzatzea, pertsona orori dagokigun legez. Eskubideen urraketa, gatazka ororen kausa eta ondorio da. Beraz, eskubideak bermatzean, gatazka prebentzio eraginkorrena jarriko dugu abian.

Bide hontatik abiatu gara iada euskaldunok: Euskal Herriaren Eskubideen Karta egiten ari gara aurten. Gure eskubideak zehazteko bidean adostasunezko gune partehartzaileak ireki ditugu. Euskal Herriak eraikiko du bere bizitzarako gune aske eta demokratikoa, bere eskubide eta askatasunak definituz. Euskal Herria bera, munduko mosaikoaren osagai izateaz gain, kolore ezberdinez osatu nahi dugu.

Zuen ekarpenak guztion aberasgarri izango direnez, gure aurretiazko ongi etorriak beroenak Herrien Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentziara.

Udalbiltza



## Aitor Zabaleta, justizia

**L**au urte beteko dira (abenduaren 8an) Aitor maitea gure albotik kendu zigutela. Aitor mutil zintzoa zen, langile fina, lagun lagun eta euskaldun amorratua.

Beste askotan bezala, Aitor, gure txuri urdin taldea animatzera joan zen Madrilerara. Espainiako hiri askotan faxisten irain eta mehatu asko jasan behar izan zituen baina Aitor ez zuen edonork kikiltzen eta Madrileruntz abiatu zen bere neska eta lagun taldearekin.

Talde hau festa gogoarekin joan zen Espainiako kapitalera baina txanponaren beste aurpegiarekin aurkitu zen. Iritsi bezain laster talde antolatu baten erasoarekin aurkitu ziren; mehatuak, irainak, kolpeak... eta Aitor taldearen aurrean beti, batez ere taldeko emakume eta ume beldurtuak defendatzearen. Bigarren eraso gogorragoa izan zen eta taldea sakabana egin zen. Beno, denok dakizue ondoren gertatu zena.

Hiltzaileak oraindik libre dabilta (Guerra famatua ez ezik) justizia petral honi esker eta bagenekien hala izango zela. Horregatik, gauza bat esan nahi diet putaseme horiei: euskalduna bihotz oneko herria dela eta badakigula barkatzen, baina inoiz ez dugu ahazten eta San Martin egunean bezala, zerri guztiei iristen zaiela bere eguna!

Aupa Aitor Zabaleta. Aitor Zabaleta Justizia.

Iker Zabaleta Cortazar

## Erle gaixoa

**A**zaroaren 10ean ospatu genuen Erle Eguna. Bertan gertatutako kontu batek sortu zidan barne-mina azaldu nahian, hitz batzuk idazteko beharrea aurkitu naiz. Erle Lagunak taldeko partaide izanik, urte guztian hilabetean behin eta bitan bildu izan gara Erle Egunaren antolaketa prestatzeko.

Egunaren bezperan jarri genituen guztion ezagun eta erakarri diren erle erraldoiak pilotalekuko estalkitik zintzilik. Gure harridura hurrengo eguneko (Erle Egunean) goizeko 8:00etan geratuta geunden bezala iritsi zen. Hamar erle jarri bagenituen ere, bederatzi bakarrik aurkitzen ziren zintzilik, buru egiten zuen erlearen hego bat ere zintzilik aurkitzen zen baina erle lurrean zegoen, hegoak sakabanatuta eta egoera larrian eta itxura txarrean. Zergaitiaz bi erantzun aurki daitezke: bata, *ganbermada* bat izan zitekeela, baina nik hipotesi hau baztertu egiten dut. Eta bestea –nik hau sinesten dut–, alegia, erleak “Euskal presoak Euskal Herrira” aldarrikatzen zuen irudia zeramakien hegotik zintzilik eta horregatik egin zuela/zutela egin zuena/zutena. Horren aurrean, nere barne-mina erle horrela ikusita, bertso zahar batek dioenarekin azaldu daiteke. Gizon batek bere andrearengatik jarritakoa mozkorraldi baten ondorioz, eskileretatik erori eta lurrean aurkitu zuenean:

“hanka bat zeukan Vitorian eta

bestea berriz Londresen”

Baina ez mozkorra zegoelako, baizik eta jipoitua eta torturatua izan zelako, erleak berak egoera hori sufritzen dutenen aldeko salaketa egiten zuelako. Gure erabakia une horretan garraiolariari deitu, erlea txukundu eta berriro ere bere lekuan jartzea izan zen, gerora hurbildu zen jendea ezer pasa ez balitz bezala ibili bazen ere.

Beno, nik ez dakit nor edo nortzuk izan ziren ordu txikietan, ezkutuan ibili zen ala ziren, baina badakit guri zer amorru sentiarazi zigun. Badakit zenbat denbora galdu arazi zigun berriro egoera normalera iritsi artean. Badakit guk aldarrikapen hori jarri bagenuen ere, taldean hartutako erabakia izan zela. Eta badakit eskubide batzuk betetzen ez direnean salatu eta beraien alde borrokatu behar dela eta badakit herriko oso urrutiko ez den/diren batzuk egin zuela/zutela baina heritik oso urruti daudenak.

Besterik gabe, jakin jarraituko dugula bide berdinean eskubideak berreskuratu bitartean. Agian zu ala zuen helburua beteta ikusi duzue, baina lasai aztertzen hasi gara eta hurrengoan erle batek aldarrikapen hori eman beharrea bakoitzari bana jarriko diogu. Ea behintzat lan gehiago izaten duzun/duzen hurrengoan. Nahiago genuke hala ere, bat bera ere jarri behar ez bagenu.

IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## Gau ederra giro jatorrean

Urte sasoi honetan ohi denez, astegunetan nabarmenago, ez da mugimendu handirik izaten auzoko elkarteetan, jende gutxi biltzen da. Aipagarria da urtean zehar sagardo eta ardo barrikoteak antolatzen dituztela zenbait bazkidek, gau alaiak pasatzeko, nolabait giroa berotzeko eta bazkideak gerturatu daitezten.

Pasa berri den azaroaren 23an, larunbata gauan, aspaldiko partez berrogei lagun inguru bildu ziren bertan izandako barrikotean. Oraingoan, Errioxatik ekarritako nahiko ardo beltza dastatzeko aukera egon zen. Jateko berriz makailua eta aurreneko aldiz basurdea saltsan. Errealak ere egun berean jokatzen zuen telebistaz emandako partidari, baino mahai gainean zer zaukaten ikusita arreta handirik ez zioten jarri. Gero galdu ez zuenez denak gustura. Gau ederra giro jatorrean. Hurrengoia noiz egin gelditu ziren.

Bestalde, behin baino gehiagotan aipatu dut erribera bidean, auzotik Santuenea artean, lagun asko ibiltzen dela paseatzen goiz-goizetik hasita.

Aurreko alean, Alazne Urdaiagako zenbait bideen egoeraz kexatzen bazen, oraingoan niri tokatzen zait txapa pixka bat ematea. Egunero ibiltzen diren horietako batzuek komentatu didate, euri dexente egiten duenean, badagoela zati bat, hain zuzen "Bistegiko Trintxera" deitzen diotena, ura presatu egiten dena, bidean aurrera egitea ostopatuz. Bat baino gehiago ikusi omen dute putzuak direla eta, etxera bueltan oinak zeharo busti gabe, pasatzeko aukerarik ez zuelako. Beno bai, aukera bakarra, bidea alde batera utzi eta belarditik gora jarraitu. Ea dagokionak konpontzen duen edo bestela ea eguraldiari dagokionez oskarbi egiten duen.

## Albiste ugari

ANA  
URDANGARIN

Kaleberri

Bazen garaia. Azkenean ere, gure Moskis-ek baldatu ditu gure Txiribogako koloreak; oraingoan gainera, zeharo aldatu ere kristoren kolore biziak jarri dizkigu-eta!! Nork aukeratuko ote zituen? Auskalo! (Hau Moskis-entzat indirekta bat da).

Izan ere, gaur egun segituan aspertzen gara betiko gauzak ikusteaz, behin bada ere. Oraingoan, gure Moskis-i tokatu zaio txanda eta ongi pasa du, kolore suabeetatik bixietara igaro baita.

Beraz, orain Txiribogara joaten den guztiari alai-tuko zaio bista, une batean bada ere. Poteoan dabiltzan koadrila parranderoei batik bat; eta oraintxe bat-batean koadrila eroak aipatuta, Usurbilgo koadrilarik eleganteenarekin eduki genuen lehengo astean afaria. Oso afari ederra izan zela esan nahi dizuet guztiei, lerro hauek aprobe-txatuz.

Beste gai bati helduz, Aitzaga elkarteak urtero antolatzen duen herriko pilota txapelketa aurrera



doa. Final-laurdenetan da txapelketa eta ea irabazleen izenak laster ezagutzen ditugun.

Eguna eta ordua jarrita duena Santo Tomas azoka da: abenduaren 15ean.

11:00etan azoka zabalduko dute eta 12:00etan herriko baserrietan egiten den sagardo lehiaketa eta dastaketa hasiko da. Ixabel III.aren zozketa, ordea, 13:00ean egingo da.

Has dadila festa!

## Arane ai ene!

**K**aixo Irakurleok! Izenburu bera jarri nion duela ia bi urte idatzi nuen kronika bati. Orduan gure herriko kirol talde gehienek bezala, garai latzak bizi zituzten futbol taldekoek. Emakumezkoek bakarrik aritu ziren baloia aurretik zutela korrika.

Aurreko denboraldian, Udarregi ikastolaren bitartez infantil taldea sortu zen eta aurtengoa, berriz, hiru taldek osatzen dute Usurbilgo Futbol Taldea: kadeteak (infantilak zirenak), emakumezkoen erregional taldea (une latzetan mantendu den talde bakarra) eta aurten sortu den gizonezkoen bigarren mailako erregional taldea (betidanik futbolariak izan, denboraldi batez utzi eta orain berriz elkartu direnak).

Futbol taldearen gainean, zuzendaritza tal-



dea osatzen duten 8-10 lagun daude eta hauei esker suspertu da pixka bat egoera.

Kalezartar bezala, animo, nahiago ditugu futbol zelaiko argiak pizturik ikusi itzalita baino.

Kalezar



JOSEBA  
PELLEJERO

## Musika eta abesbatzak

**G**ure auzoan, gero eta zaletasun gehiago nabari da. Arlo honetan, txikitatik hezitzen dira giro horretan eta lan asko egiten dutela esango nuke, eskusoinu, txistu, gitarra, nahiz pianoa, sarritan entzuten ditugu beren doinu alaiak entseatzan, eta pozik egoten gara beren doinu samurrak entzuten.

Izan ere, Zumarte Musika Eskolak lan bikaina egiten ari da aspaldiko urteotan eta irakasle apartak dituztenez, aukera paregabea dute herriko neska-mutilek nahi duten modalitatea lantzeko.

Santa Zezili beren zaindariaren egunean entzun ahal izan genuen kontzertu bitxia, baita txistularien saio bikaina, eta nola ez, parrokoiko abesbatzaren kantu samurrak.

Esango nuke oraingo gazteak zortedunak

direla gauza guzti hauek ikasteko eta lantzeko aukera ezin hobea dutelako eta esan behar da, aurrerantzean, musikak indarririk izango duela.

Bere inguruan zale diren guztientzat animo eta jarraitu aurrera.



Atxegalde



MARIA JESUS  
URBIETA



PAKO  
VIDAL

Santuenea

## Kanpotik ikusita

A skotan hitz egin dugu gure auzoak azken Aurte hauetan bizi izan dituen aldaketaz eta gaurkoan kanpotik etorri berri den iritzia ezagutuko dugu. Mertxe Balerdi Izagirrek Santuenean jaio eta bizi izan da ia bere bizi osoa; baina hogeitama sei urtetatik, azkeneko bostak Mexikon pasa ditu. Bere itzuleran aldaketa nabarmenak sumatu ditu, normala denez.

Aurrenekoa, iritsi bezain pronto gure zubian topatu zuen. Gure zubi erromanikoari goikaldean Guggenheimetik sobratutako txapa batzuk ageri zaizkio eta nahiz eta gu dagoeneko ohituta egon, inoiz ikusi ez duenarentzat begietara egiten dio. Mertxe bere seme Andonirekin etorri da eta noski, umeentzat dauden jolastokietaz ere hitz egin digu, berriak, baina txikiak ikusten dituelarik.

Gauza hauetaz aparte, aldaketa nabarmenena leihora ateratzerakoan ikusten da, ez baititu lehen zeuden gazte koadrila horiek ikusten, jolasean, hitz

egiten, denbora pasan... Orain ikusten duena hau da, kale hutsak eta etxe aurrean duen jolastokian gurasoak beren umeekin zenbait urte zaharrago diren beste gazteekin kolunpioak eta eserlekuak konpartitzen. Batzuk pozik egongo dira auzoak orain duen lasaitasunaz, baina gehienek faltan sumatzen dugu lehen zegoen auzo bizitasun hura.

Auzoak dituen erosotasunak ere aipatu nahi izan dizkigu. Hango bizimoduarekin konparatuta, hemen gauza gehiago dauzkagu bizimodu erosoa eramateko, hemen ume bakoitzak bere bizikleta, bere jostailuak ditu eta han hori ezin pentsatzea da.

Dena konpartitu beharra dago baina horrek bizitza beste balore ezberdinekin ikustea eragin dio, eta zaila da bizimoduz aldatzea. Ea guk ere ematen dugun lehen genituen eta poliki-poliki galtzen ari ditugun bizi baloreei behar duten garrantzia.

## Udazkeneko azokak



EIDER  
JAUREGI

Urdaiaga

Udazkenaren amaieran eta neguaren aurrarian gauden honetan hainbat kontu ditut esateko. Udazken epel honetan hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan dugu herrian. Aste kulturalaren barruan antzerkiak, kantaldiak e.a. ikusi ahal izan ditugu. Bestalde hainbat azoka ospatu dira, esaterako Erle eguna eta Santu Guztien egunekoa.

Hala eta guztiz ere, oraindik beste azoka bat ere falta zaigu, datorren abenduren 15ean egingo dena. Bertan herriko baserriar guztiek dute etxeko produktuak erakusteko aukera, animaliak, aurtengo sagardo berria, barazkiak, eta beste hainbat produktu. Urte osoan lanean jardun ondoren lur eta animalia bidez lortutako produktu zoragarriez gozatzeko aukera aparta. Gaur egun nekazaritzaren egoera ikusita benetan pozgarria den ekintza da azoka. Gero eta gutxiago dira nekazaritza lanetan dihardutenak. Egoera benetan triste da. Kontsumista eta

komodoen mundu batean bizi baikara. Nekazaritza arloan lan egitera ausartzen denak hainbat baldintza eta inspezio pasa behar ditu eta benetan zaila da administrazioak jartzen dituen baldintzetan lan egitea. Gaur egun nekazaritza bizitza erabakitzen duenak garbi eduki behar du inbertsio handiak egin beharko dituela eta askotan berak jasoko dituen irabaziak zenbaterainokoak izango diren jakin gabe. Administrazioak nekazaritza bultzatzen lagundu nahi duela dio baina egia esanda askoz merkeagoa da hemengo baserriarrek produzitzen dituzten jakiak kanpotik inportatzea. Kalitatez beharbada ez dira hemengoak bezain onak baina jateko modukoak daudenez...

Administrazioaren kanpaina batek dioen bezala, "Ingurumena zurea da" zaindi ditzagu herriko baserriarrek eta baserrietako produktuak.



## Santa Zezili eguna

Joan den azaroaren 22an ospatu genuen Santa Zezili eguna. Entsegu txiki bat egin astearteko partez (egun horretan baitugu urtean zehar koruko entsegu) eta ondoren afaria Aginaga Sagardotegian. Hogeitamabi urte darrazkit Aginagan eta gaur aipatu nahi dituzten omenalditxo baten moduan ezagutu dituzten bi organistak, apaizaz aparte: Bittoriano eta Mariasun.

Aktiboan Bittorianok bakarrik segitzen du, eta hemendik animatu nahi dut Mariasun organoa jotzeari ez uzteko denok pozik hartuko dugula berriro betiko bere tokian, eta seguru nagoela bere aitona Agustinek pozik txalotuko duela berak hainbeste maite zuen eta erakutsi zion organoari bizia ematea, aupa neska!

Aipatzekoa da ere, gure apaiza Luisek antolatutako gazte taldea. Hamar bat lagunek osatuta

dago talde hori, bi flauta trabesera, eta besteak txistulariak ditugu horietako batek soinu txikia ere jotzen du elizkizun berezietan, meritu handia dute. Mezetara etortzen baitira igandero eta a zer nolako erakustaldia ematen duten, oso ondo jotzen baitute. Hauengan da etorkizuna eta horrela segi aurrera!

Korua ere ezin aipatu gabe utzi, batez ere, gure zuzendari den Jabier, eta Ebaristo eta anai Antxon, gure bertsolari ofizialak eta beste bederatziz emakumeek osatzen dugu gure parroko korutxo hori, denon artean saiatzen gara ospakizun ederra eta alaia eskaintzen gure auzotarreri. Gabonak ere gainean direla eta, jotake ari gara entseatzen ahalik eta ondoen egin dezagun.

Urtea ondo bukatu eta hobeto hasi.

Urte berri on!

Aginaga



MARIA  
ANGELES  
ARRUTI

## Kamioientzako aparkaleku berria

Azken aldian, Zubieta aldean, makinak eta obrak dira nagusi; izan ere, ari dira urbanizazio proiektua garatzen, etxe berrien eta ezker pareteko frontoiaren oinarri izango dena osatzen. Dena den, gaur beste berri batekin natorkizue. Lehengo eguneko egunkariak azaltzen zenez, 2004ko urtarrilean, kamioientzako aparkaleku berri bat irekiko dute Zubietan, "Merkabugati" barazki merkatuaren inguruan.

Aparkalekuak, 238 toki izango ditu kamioientzat eta 64 kotxeentzat. Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunen esanetan, 8.206.000 euroko aurrekontua izango du. Inguruan beste azpiegitura batzuk eraikitzea aurrirakuten da, hala nola, garraio enpresek euren instalazioak kokatzeko guneak eta abar, guztira 16.258 metro.

Adituek adierazi dutenez, kamioien trafikoa Gipuzkoan %10 gehitu da azken urtean, eta garraio azpiegiturak (aparkalekuak, gasolindegia eta abar) kopuru berdinean jarraitzen dute. Beraz, eta beti aditu horien esanetan, arazoa egunetik egunera larriagoa da. Beste datu bat, aurten 8000

kamioi pasako dira Behobiako mugatik eta 2010 urtean, kopuru hau 14.000-ra iristea espero da.

Beraz, Zubietako obra horiek, arazo hauei neurri batean konponbide bat emateko asmotan eginak omen daude, eta dirudienez, Zubietako gune hau ez da bakarra izango, izan ere, horrelako beste aparkamentu batzuk eraikiko dituzte, Lintzirin, Zarautz, Tolosa eta Irunen.

Hala ere, aparkalekuen gaia ez da arazo bakarra, izan ere, pentsatu beharko dute zerbait N-I errepidearekin, Gipuzkoako errepide sarearen ardatz nagusian, egunetik egunera, kotxe eta kamioen jarioa haundiagoa baita, eta istripuren bat dagoenean, denok dakigu zenbateko iladak sortzen diren, jendearen pazientzia kolokan jarriaz.

Dirudienez, azkeneko arazo hau beste kapitulu batean argituko digute. Bitartean, itxarotea besterik ez zaigu geratzen.

Zubieta



MIKEL  
BENGOETXEA

# Aginagako Komunitatearen hainbat lur erosiko ditu Udalak

AGINAGA KOMUNITATEAK HAINBAT LUR KUDEATZEN DITU. HORIETAKO BATZUK SALTZEKO ASMOA AZALDU ZUEN BAINA USURBILGO UDALARI EMAN ZION LEHENTASUNA. UDALAK ESKAINTZA AZTERTU ONDOREN, SALMENTAN JARRI DITUZTEN LUR SAILAK EROSTEA ERABAKI DU. AZAROAREN 27AN EGIN UDALBATZA BILKURAN HARTU ZEN AZKEN ERABAKIA.

**M**alkartsuak eta aldapatsuak dira Aginagako Komunitateak saldu nahi dituen lursail gehienak. Hala ere, udalak ekimen honekin bere ondarea handitu nahi duela adierazi digu Jose Antonio Altuna alkateak.

Aginagako Komunitateak lursail batzuk saltzeko erabakia hartu zuenean lehenik eta behin udalera jo zuten. Luis Renedo San Sebastian arkitektoak lur zati hauen balorazioa egin ondoren eskaintza bat egin zion Komunitateari. Aldameneko taulan dituzue tokian tokiko lursailengatik udalak egindako eskaintza zehatz-mehatz. Aginagako Komunitateak ontzat eman zituen diru kopuru horiek eta azken udalbatza ple-noan behin betiko baieztapena eman zitzaion lursail hauen salerosketari. Dena den, ekimen hau iaztik dator eta 2002ko aurrekontuetan aurrikusi zen gastu hau.

Dena den, bada argitzeke geratu den kontu bat. Izan ere, Usurbilgo parrokiaren esanetan, Ostatua izeneko lur-

saila (San Estebango elizaren ondoko lur laua) elizarena da. Gauzak ez daude batere argi. Izan ere, lursail hori bi aldiz erregistratuta baitago. 1920an, Aginagako Komunitatearen izenean; eta 1992an, parrokiaren izenean. Hau konpontzeko bi bide aurrikusi dira: bata, lursaila bere izenean dutenen arteko akordioa; bestea, epaile batek jabetza norena den argitzea. Aipatu behar da lursail hau dela garrantzitsuen, hiri-lur izaera baitu. Hor argitu bitartean, Udalak gainontzeko lurak erosteko konpromisoa hartu du.



UDALAK GUZTIRA 36.134,49 €-KO INBERTSIDA EGINGO DU LUR HAUETAN.

## AGINAGAKO KOMUNITATEARI EROSITAKOAK

1	Erroizpe lursaila (Mandebieta)	19.554 m <sup>2</sup>	0,66 €/m <sup>2</sup>	12.905,64 €
2	Puela aldiako lursaila (Belostegi)	10.675 m <sup>2</sup>	0,66 €/m <sup>2</sup>	7.045,50 €
3	Ostatua lursaila (Eliza-atzia)	450 m <sup>2</sup>	4,21 €/m <sup>2</sup>	1.894,50 €
4	a) Ostatua lursaila (Aldapa)	873 m <sup>2</sup>	4,21 €/m <sup>2</sup>	3.675,33 €
	b) Ostatua lur sailaren ondokoa (Aldapa)	4.597 m <sup>2</sup>	0,28 €/m <sup>2</sup>	1.287,16 €
5	Gatzain erreka lursaila (Aitzmurgil-aldea)	8.480 m <sup>2</sup>	0,48 €/m <sup>2</sup>	4.070,40 €
6	Lasao-erreka lursaila (Lasao errekaldea)	644 m <sup>2</sup>	0,28 €/m <sup>2</sup>	180,32 €
7	Intxauspe lursaila	675 m <sup>2</sup>	0,28 €/m <sup>2</sup>	189,00 €
8	Puela-aldia lursailaren ondokoa	7.404 m <sup>2</sup>	0,66 €/m <sup>2</sup>	4.886,64 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>53.352 m<sup>2</sup></b>		<b>36.134,49 €</b>



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



**HERRIKO TABERNA**

Astebukaeretan bokatak, plater  
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

*Euskal presok etxera!*



# Arau subsidiarioen dokumentua, plazara

Udaberrian Noaua'n azaldu genuen bezala, arau subsidiarioak aldatzeko garaia da. Azken aldaketak 1992an egin ziren. Udalak etorkizunari begira duen egitasmoa aurkezteko moduan da baina oraindik irekia dago dokumentu hau; ekarpenak eta aldaketak egin daitezkeela, alegia.

Arau subsidiarioen (AASS) hasierako onarpenerako dokumentua prest dago jada. Orain, Udalak idatzi honen

berri eman nahi dio herriari. Pasa den asteko Hirigintza Batzordean, hain zuzen, AASSen dokumentua auzo auzo aurkezteko egutegia aurkeztu zen. Udalak egingo dituen aurkezpen hauetan, dokumentu honen berri eman nahi die Usurbilgo herritarrei. Bilerak irekiak dira eta udalak bilera-aurkezpen hauetan partehartzeko gonbitea luzatu nahi digu. Sei dira egingo diren aurkezpenak: Txokalden, Santuenean, Aginagan, Kalezarren, Zubietan eta Kaskoan.

## Aurkezpen ekitaldiak

**ABENDUAK 10, ASTEARTEA**  
Txokoalde, arratsaldeko 19.00retan

**ABENDUAK 12, OSTEGUNA**  
Santuenea, arratsaldeko 19.00retan

**ABENDUAK 14, LARUNBATA**  
Aginaga, goizeko 11:30retan

**ABENDUAK 17, ASTEARTEA**  
Kalezar, arratsaldeko 19:00retan

**ABENDUAK 19, OSTEGUNA**  
Zubietan, arratsaldeko 19:30retan

**ABENDUAK 23, ASTELEHENA**  
Kaskoa, arratsaldeko 17:30retan

## Galdeiozu!!



**A**sko dira herritarroi eguneroko bizitzan sortzen zaizkigun zalantzak, galderak... Horregatik, udaletxeko politikari zein teknikariei nahi adina galdera egiteko tarte hau zuen esku utzi dugu.

Nahi izanez gero, buruan duzun galdera edo kezka hori era anonimoan argitaratzeko aukera duzu; hori bai, gutxienez Noauako kide batek galdera egilea nor izan den jakin behar du. Idatzian zehaztu ondo zein den galdera edo kezka, eta ahal bada, nori edo zein batzordea zuzenduta dagoen.

Bidali zure galdera eta zehaztu, ahal bada, nori zuzendua dagoen:  
Noaua! - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
e-posta: noaua.k.e@euskalnet.net

## ABENDUAREN 11N UDALA ITXITA EGONGO DA

Abenduaren 11n udaletxeko ateari itxita egongo dira. "Udalbiltza eguna" dela eta, jai eguna izango da udal langileentzat. Abenduaren 3an ere itxita egon zen udaletxea "Euskararen eguna" baitzen. Udaleko lan-egutegian urriaren 12a eta abenduaren 6a lan egunak dira. Horien ordean, aipatu ditugun beste bi egun horiek hautatu ziren.

## URTEKO AZKEN KREDITU ALDAKETA

Azaroko plenoan azken kreditu aldaketa onartu zuen udal plenoak. Urteko laugarren kreditu aldaketa izan da hauexa. Datuei erreparatu, sarrera berriak 234.973 eurokoak izango dira. Gastu partidak, ordea, gtxitu egin dira, 103.651 eurotan. Kredituen karga, aldiz, 338.624 eurotara igo da.

## ABIAN DA, AZKENEAN, KULTUR ETXE BERRIA

Kultur etxe berria da aurtengo udal aurrekontuen zutabe nagusietako bat. Urte hasieran iragarritako egitasmoa hezurmamitzen hasia da. Miserikordia edo Udarregi Zaharra bezala ezagutzen dugun eraikina botatzeko lanak martxan baitira.



# Bidezko kontsumotik, bidezko gizarte batera

**P**ausoz Pauso taldekoak Bidezko Merkataritzaren aldeko kanpaina etengabe dabilta. Eguberriak gainean ditugunez, kontsumoak gora egiten du nabarmen. Akaso ezezaguna bazaigu ere, bada kontsumitzeko beste erarik. Elkartasunaren bidetik, ekoizleen duintasuna aldarrikatzen duen salerosketa ereditik. Leire Atxega, Pausoz Pauso taldeko kideak eman dizkigu kanpaina honen premisa nagusiak.

**Bidezko Merkataritza, ezaguna zaigun espresioa da. Baina zer da adierazpen horren baitan biltzen dena? Funtsean, zer da Bidezko Merkataritza?**

Bidezko Merkataritza ohiko merkataritzarekiko alternatiba da. Azken horren irizpide ekonomikoen gainetik, balore etikoak aldarrikatzen ditu: alderdi sozial eta ekologikoak. Era honetan, gune txiroetako ekoizle txikiak eta nekazariak lana duintasunez egiteko bidea dute. Kontsumitzaileek kalitatezko produktuak erosten dituzte, langilearen eskubideak eta ingurumenaren errespetatu direla jakinez. Ekoizle eta kontsumitzailearen arteko harremana estutu egiten da. Irizpide ekonomikoak, gizartearekin eta ekologiarekin bateratzea posible dela egiaztatzen da. Lan egiteko modu honetan... soldata duin bat bermatzen da. Haur esplotaziorik ez

da ematen. Emakume eta gizonen artean ez dago lan eta soldata ezberdinek. Erabakiak demokratikoki hartzen dira.

**Indar handia hartzen ari da Bidezko Merkataritzaren aldeko mugimendua. Zergatik dela uste duzu?**

Guztiok merkatu handi baten partaide gara, baina onurak ez dira denengana berdin iristen. Ez da beraz, berdin arteko norgehiagoka, izan ere, ez baikaude guztiok hasierako abiapuntu berean. Munduko merkataritzaren zati handiena enpresa multinazionalen esku dago. Momentuz, 40 bat saltoki baino gehiago daude Estatuan, gehienak hirietan. Denden kopurua oraindik oso txikia den arren, Bidezko Merkataritzako produktuak edozein txokotik lor daitezke, erakunde batzuk katalogo bidez egiten baitituzte salmentak. Izaera berezia duten postu eta azoketan ere eros daitezke, baita hainbat bolondres taldek eginiko salmentetan ere. Oraindik hasierako pausoak besterik ez ditugu eman. Gure gizarte konsumista honetan asko dago egiteko.

**Zenbaitzuk diote herrialde horien arazoa estrukturala dela eta testimonialtzat jotzen dituzte tankera honetako ekimenak.**

Seguraski herrialde behartsu horien arazoa estrukturala izango da; baina gurea "mentala" ez ote da? Mundua era bakarrera soluzionatu dezakegula pen-



PAUSOZ PAUSO TALDEKOAK JARRI DUTE MARTXAN ELKARTASUN KANPAINA HAU.

tsatuz eta gainera guk esaten dugun eran? Ipar hemisferioan bizi garenok, munduko biztanleen % 26<sup>a</sup> izanik, baliabideen %80<sup>a</sup> kontsumitzen dugu. Zer esan nahi du horrek? Sistema honek duintasunik gabe uzten gaituela bai Iparraldekoak zein Hegoaldekoak. Gu gizentze-abereen mailara jaisten gaitu, publicitatearen aginduen esanetara makurtuak. Hegoaldekoak, berriz, arrastakarien mailan jartzen ditu, interes ekonomiko hutsen esanetara esplotatuak. Ekoizle gehienek produkzioaren zati bat Bidezko Merkataritzako erakunde bidez saltzen dute eta beste zatia ohiko merkatuan. Bidezko Merkataritzako mugimendua bertatik saiatzen da dependentzia ekiditen, izan ere, ez dago ekoizpen guztia saltzeko adina gaitasun edo indar. Bide horri esker ekoizleek hainbat abantaila lortzen dituzte: heziketa hobetzea, antolatze gaitasuna, lanaren kudeaketa... eta gainera merkatu berriak bilatzen saiatzen dira, beren herrikoak barne.

**BORDATXO EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

**ESTETIKA ZENTROA**

**LOURDES LARRAÑAGA**

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

**Irazu kalea, 12-behea  
Telf: 943 36 28 87**

**PATRI**

JATETXEA

- Egumeroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak

Telf: 943 36 27 25  
Kale nagusia, 14

### Hirugarren Munduari gure laguntza bideratzeko beste erarik ba al da?

Donostiako Elizbarrutiak Misio ordezkari bat du eta une honetan 700 bat misiolari, apaiz, moja eta laiko daude 65 bat herrialdetan bizi-kalitate hobeko baten alde lanean. Hirugarren Munduari laguntzeko era asko daude. Gipuzkoako herri gehienetan misio taldeak dauzkagu. Talde hauen egin beharrak hauek izan beharko lukete: herriari informatu, sentsibilizazio kanpainak bultzatu, gonbitea luzatu misiolari berriak joan daitezen, proiektuak bideratu, misiolariekin harremanetan jarri, hauen lana ezagutzera eman, elkartasun-afariak egin, postalak eta egutegi solidarioak erosi, zure laguntza ekonomikoa ingresatu... Gure eguneroko bizitzan, aurrera pausoak eman kontsumo arduratsuegi baten alde.

### Gabonen atarian gaude. Badirudi soilik garai hauetan azalerazten dugula gure elkartasun nahia.

Begira, bidezko merkataritza ez da guk Eguberrietan erosi ahal ditzazkegun produktuekin soluzionatuko. Guzti hau alferrikakoa da, eguneroko kontsumoan ez baditugu kontsumo joerak aldatzen. Kontsumitu eta gehiago konpartitu, besteak ere duintasunez bizi daitezten.

### Zerbait gehiago gaineratu nahi?

Ez ahaztu "elkartasuna" maitasunaren izen berria dugula. Eta beste era bateko "globalizazioa" posible dela. Gonbitea luzatu nahi dut hemendik, egin beharrekoa egin dezagun, konponbidea gure esku ere badagoelako. Kontsumo ardurtsua egin dezagula datozen eguberrietan.

### PAUSOZ PAUSO TALDEAREN EKIMENA

Usurbilen bada Bidezko Merkataritza sustatzeaz arduratzen den talde bat: Pausoz Pauso. Usurbilgo parrokiaren eratu zen taldea, Ziortza Gazte Elkartearen bezalaxe. Gazteekin aritzen da lanean Ziortza, baina bestelako ekimenak ere sustatzen ditu: ingurugiro tailerra, tailer soziala eta hizpide dugun tailerra, Pausoz Pauso: Hirugarren Munduari begira eratutako taldea.

Ziortzako gazte batzuen ekimenez abiatu zen Pausoz Pauso 1998. urtean. Hirugarren Munduaren inguruan zituzten kezkei erantzun asmoz elkartu ziren. Talde honen lehen helburua herrialde horien inguruko ahalik eta informazio gehien lortzea izan zen. Bigarrenik, Usurbilgo misiolariak dauden herriekin (Myanmar, Paraguay, Brasil, Argentina, Argelia eta Paragauy) harremanetan jarri eta laguntza apur bat eskeini. Jada osatua dute Angolarako proiektu bat -lanbide heziketako ikastetxe bat, hain zuzen ere- eta orain, Argeliako ikastetxe baterako proiektua darabilkete eskuartean.

## Espekulaziotik at dagoen salerosketa-eredua

**N**ork egiten ditu bitartekari lanak? Fidagarriak al dira? Ba al da kontrol mekanismorik?

Galdera hauek ohikoak izaten dira, antzeko kanpainetan iruzur kasuak ere eman izan direlako. 1996. urtetik hona bada Estatuan Bidezko Merkataritzaz arduratzen den erakunde bat. Koordinakundearen oinarriko helburuak hiru dira: Bidezko Merkataritzako mugimenduaren ordezkari izatea, informazioa zabaltzea eta jarduera bateratuak sustatzea. Prozesu honetan beharrezkoak ez diren bitartekari guztiak desagertu egiten dira, merkataritza arruntean hain ohikoa den espekulazioa baztertuz.

Denda gertuena elizbarrutiaren baitan diren Kitzin dendak dituzue.

Donostian: Juan de Bilbao 2 behea (Alde zaharra). Telefonoa: 943:42 69 46.

Zarautzen: Sta. Marina 3, behea. Telefonoa: 943:13 23 16.



## MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkitu!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



## Usurbil Autoak, S. C. L. Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

# Pailazoen ikuskizun berria, abenduaren 22an

**A**urtengo gabonetan ere, Takolo, Pirritx eta Porrotx Usurbilgo Oiardo Kiroldegian izango dira "15 urte zuekin...Kaxporreta!!" ikuskizun berriarekin. Emanaldiak, abenduaren 22an, igandez, arratsaldeko 16:30 eta 18:30tan izango dira.

Sarrerak salgai izango dira abenduaren 8tik aurrera Usurbilgo Mahuka erropadendan, Oiardo Kiroldegian eta Benta tabernan. Baita, Orioko Arkaitz tabernan, Hernaniko Lete liburudendan eta Lasarteko Artizar tabernan.

Aldez aurretik erosten badira 4 euroko



BI SAIO ESKAINIKO DITUZTE HILAREN 22AN.

prezioan, eta egun berean 5 eurotan. 12 hilabete arteko haurrak doan sartuko dira, norbaiten ardurapean beti ere. Antolatzaile: Argiaren Adiskideak, Usurbilgo Taldea.

## Genero indarkeriaren aurkako adierazpenak

**A**zaroaren 25a Genero Indarkeriaren aurkako eguna izan zen. Zeresan handia eman zuen egun horrek eta haren oihartzuna ere iritsi zen guregana.

Genero indarkeria salatu asmoz, Euskal Udalerriak erakundeak adierazpen bat aurkeztu zuen azken udalbatza plenoan. Udala herritarrengatik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik, prebentzioan eta biktimei eskaini beharreko laguntzan zeresan handia duela dio idatzia. Halaber, Euskal Udalerriak-en adierazpenak dioenez, "beharrezkoa da alor honetan udal politikak garatzea eta

tokian tokiko foroak sortzea, ekimenak eta esperientziak elkartrukatzeko eta elkarrekin lanean aritzea errazagoa izan dadin". Udalak adierazpen honekiko atxikimendua azaldu zuen.

Halaber, beste idatzi bat ere onartu zen Usurbilgo Udalaren ekimenez. Bi konpromiso hartzeko prest dago: "batetik, emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko konpromisoa; bestetik, sexuen arteko harreman parekidean oinarrituriko jendarte sortzeko behararen aldeko konpromisoa. Emakumeenganako indarkeriarekin bukatzea sexuen arteko parekideetasunerako urratsak ematea delako".

### HIRI HONDAKINEN PLANA HERRIAN AURKEZTUKO DUTE

Aurreko alean aipatu genuen moduan, San Markoseko Mankomunitateko hiri-hondakinak kudeatzeko Plan Integralak (SMHHKPI) hasierako onespena jaso du. Dena den, jendeak edukia azter dezan hiru hilabetez jendaurrean jarri da aipatu idatzia. Plan Integrala edonoren eskura dago Mankomunitateko bulegoetan eta interneten honako web orrian ([www.gipuzkoa.net/san-marcos](http://www.gipuzkoa.net/san-marcos)).

Mankomunitateak iritzia emateko gonbitea luzatu nahi die hiritarrei. Horretarako, informazio-bilerak eta eztabaidak antolatu ditu San Markoseko Mankomunitateko eremuko gizarte-eta ekonomi eragileekin, hiri-elkarteetako ordezkariekin, enprekin, sindikatuarekin eta abarrekin. Usurbilgo kasuan, abenduaren 9an ordezkari politiko eta udal teknikariekin bilduko dira abenduaren 9an, arratsaldeko 18:00etan. Herri-erakunde eta hiritarren txanda, aldiz, urtarrilaren 21ean, 19:30etan hasita. Bi bilkurak pleno aretoan egingo dira.

Jendaurreko prozesua amaitutakoan, aurkeztutako arrazoibideak ebatziko dira eta Plana behin betirako onartzeari ekingo zaio 2003ko otsaileko bigarren hamabostaldian.

**gorriti**  
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

TXURRUT

TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80

# Zorionekoak musikariak

**S**anta Zezili eguna ez zen oharkabe-san pasa. Asko dira Zumarte Musika Eskolan dabiltzan ikasleak. Eta beraiantzat eta beren senideentzat egun berezia izan zen azaroaren 22a. Herriko txistulariek ez zuten hutsik eta bi eguneko atzerapenez izan bazen ere, musikarien eguna jaialdi berezi batekin ospatu zuten.

Bi alditan ospatu zen Santa Zezili eguna. Azaroaren 22an, musikarien egunean, Udarregi Ikastolako aretoa izan zen Zumarte Musika Eskolaren bilgune nagusia. Jaialdi atsegin batean, ikasleen trebezia gertutik jarraitzeko aukera izan genuen.

Txistulari taldeak, ordea, iganderako utzi zituen ospakizunak. Kalejiran herria alaitu ondoren, kontzertua eskaini zuten frontoian.



AZAROAREN 22KO EKITALDIAN LAGUN ASKO PASA ZIREN OHOLTZATIK.



TXISTULARIEK KALEJIRAN OSPATU ZUTEN SANTA ZEZILI EGUNA.

## IKASTARO INTERESGARRIAK GURASO ESKOLAN

Guraso Eskolak ere ekin dio "ikasturte" berriari. Aurten, ordea, Txaramunton egingo dira aipatu ikastaroak. Gaur egungo kideek adierazi digutenez, "eskola" honetan asko ikasi dute, guraso arteko informazio-trukaketa aberasgarria dela azpimarratuz. Dena den, belaualdi berrien indarra sumatzen dute. Taldea edonori irekita dago, partehartzeko eta ikasteko gogoz dagoen orok lekua duela taldean.



### AUTOMAKILAJEA

Abenduan, astean behin.  
3 eguneko ikastaroa eta egunean 2 ordu

### MEMORIA LANTZEN

Urtarrilean, asteazkenetan.  
12 eguneko ikastaroa, 18:30/19:30.

### ETXEKO LORAGINTZA

Martxoan hasita, astean behin  
6 egun, egunean bi ordu

Izena emateko: Guraso Eskolan, 943 372 124.

# Jendetsua eskubide politikoaren aldeko manifestaldia

**H**erriko hogeita sei talde eta elkarteek deituta, azaroaren 23an egindako manifestazioari buruz honako balorazioa egin digute antolatzaileek: "bertan parte hartu zuten hainbat herritarren iritziak entzun eta gero, gaur egun pairatzen dugun egoerari aurre egiteko urrats garrantzitsutzat jotzen dute gehienek. Horrelako ekimenekin demokraziaren oinarriak eta Euskal Herriko naziotasuna bera kinka larrian dauden honetan, erreakzionatzeko ahalmena badagoela agerian geratzen da".

Seguru asko urrats berriak eman beharko direla aipatzen dute, eraso izugarria delako eta gure herriak manifestazio bat baino gehiago merezi duelako. Horregatik partehartzearekin (150 lagun inguru) pozik baldin badaude ere, antzeko deialdiak egiten badira jende gehiago gehituko dela espero dute.

Deitzaileak: Agiñako jai batzordea, Agiñako Kirol Kultur Elkarte, Aitzaga Elkarte, Akerra gaztetxea, Arrate zaharren

egoitza, Erle laguna, Errepresioaren aurkako taldea, Etumeta euskaltegiko irakasleak, Etxerat, Euskal presoak Euskal Herrira kirol taldea, Gorostitxo Eztiola Elkarte, Guraso

Eskola, Gure artera bilgunea, Gurtertz, Ibai Ondo, LAB, Mahaspildegi, Mihixe pintura eskola, UGA, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako jai batzordea, Zubietako Pelota Elkarte, Bota punttuba, Andatza KKE, Peña Pagola Elkarte, Kalezarko Jai Batzordea. Agiria babestu zutenak: Andatze Kirol Elkarte, Elkarr, Noaua! Kultur Elkarte.



*Xinkildegia*

Lentzeria, gizonezkoentzat arropa, haurren jantziak, etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea, 20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



- Plater konbinatuak
- Ogitaldekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 936 36 04 66

Kale Nagusia, USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 10

LABE-GOXO

# Giro ederra Zubeldia Peñaren bazkarian

**K**ito denboraldia. Amaitu dira lasterketak, akabo izerdiak. Urtean zehar ahitutako indarrak berdintzeko moduko bazkaria egin zuten pasa den larunbatean Zubeldia Peñako kideek. Amaitu bezain ondo has dadila datorren denboraldia.

Zubeldia Peñak denboraldi amaierako bazkaria egin zuen larunbatean Aginaga Sagardotegian. Lagun asko hurbildu ziren bazkarira, tartean, noski, bi txirindulari usurbildarrak. Omenduak Haimar eta Joseba izan baziren ere, tropeleko hainbat lagun izan ziren bazkarian: Igor Astarloza eta Osa anaiak, besteak beste. Giroa primerakoa izan zen. 2002an bi anaien lana aipatzekoa izan bada ere, ez dezagun ahaztu Euskal Bizikletaren antolakuntzan Zubeldia Peñak ahalegin berezia egin zuela. Zorionak denei eta ea 2003<sup>a</sup> arrakastatsua suertatzen den Haimar zein Josebarentzat.



HAIMAR ETA JOSEBAREN ALDAMENEAN IZAN ZIREN, BESTEAK BESTE, OSA ANAIK ETA IGOR ASTARLOZA.



LAGUN ASKO HURBILDU ZIREN AGINAGA SAGARDOTEGIRA.

## JUDO TALDEAK BIKAIN DARRAI

Bete-betean da judo denboraldia. Hona hemen azken txapelketen emaitzak. Berriz ere, onenen artean izan dira Usurbilgo taldeko kideak.

### Lisboako Nazioarteko Senior Txapelketa:

Andoni Aizpurua, brontzea. 60 Kg.

Xabier Urkizu, brontzea. 73 Kg.

### Lameziako (Italia) Nesken Txapelketa:

Aiora Arrozpide 7. postua, -57 Kg.

M<sup>a</sup> Jose Sardon 4. postua, +78 Kg.

### Europako Junior Txapelketa

(Rotterdam):

Oiana Blanco, 4. postua. -48 Kg.

### Nazioarteko Txapelketa (Amurrio):

Aiora Arrillaga, zilarra. +47 Kg.

Irati Holgado, zilarra. -42 Kg.

Maialen Cardenas. brontzea. -47 kg.

Macarena Arrieta, brontzea. +47 Kg.

## JON KORTAREN AZKEN TXANPA

Junior mailako onenen artean aritu da aurten Jon Korta. Open Pirineos 2002 mountain bike itzulian podiumera igotzeko aukera asko zituen baina azken lasterketan erorikoa izan eta lasterketa utzi behar



## Hurrengo saioak

### FUTBOLA

#### Abenduak 8

Emakumezkoen liga: Zarautz KE - Usurbil FT.

Erregionala 2. maila: Axular - Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: Santo Tomas Lizeoa B- Usurbil FT.

#### Abenduak 15

Emakumezkoen liga: Amara Berri - Usurbil FT.

Erregionala 2. maila: Usurbil FT - Amara Berri.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - San Patricio.

### ARETO-FUTBOLA

#### Abenduak 8

Alebin neskak, Infantil neskak, Infantil mutilak: atsedeen.

#### Azaroak 14

Alebin neskak: Jesuitinak - Udarregi B / Udarregi A-Egape A.

Infantil neskak: Udarregi, atsedeen.

Infantil mutilak: Udarregi - Belen.



### ESKUBALOIA

#### Abenduak 8

Senior mutilak: Usurbil KE-Hegialde Auto. 11:00etan Oiardon.

Jubenil mutilak: atsedeen.

#### Abenduak 14

Jubenil mutilak: Usurbil KE - Gaur Elgoibar. 16:30etan Oiardon.

#### Abenduak 15

Senior mutilak: Arrasate EB - Usurbil KE.

*Oharra: zure taldeko egutegia hemen ikusi nahi baduzu, pasa zaitez Noaua!ko bulegotik edo bidali e-mail bat helbide honetara: noaua.k.e@euskalnet.net*



# Ez hutsik egin Santo Tomas azokan

**A** benduaren 15ean Santo Tomas azoka izango da herriko pilotalekuan. Iazko biderei jarraituz, txistorra eta talo postuez gain, azoka ere izango da. Baina, badago gehiago ere. Izan ere, baserrietan ekoizten den babarruna eta sagardoa epaituko baita bi lehiaketan bitartez. Herritarrek baserriko sagardoa dastatzeko aukera izateaz gainera, sagardoa epaitzeko tartea ere izango dute. Baserriko produktuak kalera ateratzeko saioa da Ziortzak, Noaua! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo udalak antolatutakoa. Gainera, Ixabel III.a euskal arrazako zerria ere bertan egongo da nork eraman zain.

Esan bezala, beraz, abenduaren 15eko azokan lau protagonista nagusi izango ditugu; txistorra, zerria, babarruna eta sagardoa. Orain arte askok eman dute izena babarrun lehiaketan nahiz sagardo lehiaketan. 22 babarrun ekizlek eman dute izena; Berritza Barrena, Olanoean, Zugasti, Portu, Arratzain Berri, Gaztañaga, Arratzain, Markel Olaizola, Mikel Rekondo, Etxarri, Gorostidi, Bixenta Manterola, Aldagorri, Zumitza, Bizkarre, Berritza Bitarte, Martin Irazusta, Pokopandegi, Galardi, Agerre eta Illunbe. Oraindik ere baduzu aukera; nahi izanez gero Noaua!ra deituta (943 36 03 21) edota egunean bertan goizeko 9:30etatik aurrera ekarrita.

## EGITARUA

- 9:00-10:30: Babarrun lehiaketarako izen-amatea

- 11:00: Azoka irekera eta babarrun lehiaketaren hasiera.

12:00: Herriko baserrietan egiten den sagardo lehiaketa eta dastaketa.

Goiz osoan zehar txistorra eta talo postuak egongo dira. Goiza alaitzeaz herriko trikitilariak arduratuko dira.

- 13:00: Ixabel III.aren zozketa. Ondoren, babarrun eta sagardo lehiaketan emaitzak.



ZIORTZAKO GAZTEEK TXISTORRA ETA SALDA PRESTATUKO DUTE.

Lehiaketa honetan epaimahai lanetan herriko dendariak arituko dira eta Tolosako teknikariak izango dituzte laguntzaile.

Bestetik, baserriko sagardo lehiaketa izango dugu. Honako baserriek hartuko dute parte: Zugasti, Olanoeana, Arratzain, Etxetxo, Gorostidi, Arratzain Berri, Zumitza eta Berritza Barrena. Arestian esan bezala, oraindik garaiz zabiltzate izena emateko. Lehiaketaz gain, sagardoa dastagai jarriko da eta herritarrek ere sagardo onena epaitu ahal izango dute. Iaz bezala, aurrean ere epaimahai kideak herriko elkarteetako ordezkariak izango ditugu. Bestalde, azoka ere izango da eta oraindik baserriar gutxi animatu bada ere, gonbita luzatuta dago. Besteak beste, postu hauek ikusi ahal izango dira: Goenaga, Zugasti baserria, Markel Olaizola, Etxarri, Urtinea, Zatarain Etxe Berri eta Etxetxo.

Baina, hau guztiaz gain bada ekitaldi gehiagorik ere. Ziortzak txistorra eta talo postua jarriko baitute eta Ixabel III.a euskal arrazako zerria zozketatuko baita. Bertsolariak eta trikitilariak ere ez dira faltako. Beraz, badakizue, animatu eta azaldu pilotalekutik abenduaren 15ean.


## “HERRIAK BADAKI” LIBURUA ABENDUAREN 13AN AURKEZTUKO DA

Duela bizpahiru urte “Zubieta, mila urteko herria” liburuarekin hasitako argitalpenen biderei jarraitu nahian, aurtengo gabonetan Etxerat eta Errepresioaren aurkako taldeek Usurbilgo azken 28 urtetako memoria errepresioa jaso nahian garatutako lana kale-ratuko dugu. Bi talde hauek duela bi urte Noaua! Kultur Elkarteak luzaturiko bekaren bitartez egin dute aipatu bilduma. Liburu honen argitarapena Udalak emandako babes ekonomikoari esker posible izan da.

Liburua “Herriak badaki” titulupean “bataiatu” dute eta bertan 1973tik 2002a arteko Usurbilgo memoria errepresioa biltzen da. Egileek liburuaren sarreran lan honen zergaitia aipatzen dute: “belaunaldi gazteek jakin dezaten eta zaharragoek gogora ekarri dezaten, egokia iruditu zaigu bilduma hau lantzea, finean oroitzea baita antzeko izugarrikeriak berriro ez gertatzeko bide eraginkorrenetariko bat”.

Liburuaren argibide gehiago antolatu aurkezpean izango dituzu, beraz, hitzordua hauxe: abenduaren 13an, arratseko 19:00tan udaleko pleno aretoan.





# Ibilaldia Aralarren

Urriaren 18an Aralarren izan  
U ginen DBH 2. mailakook.  
Eguraldi zoragarriari esker,  
udazkenak eskaintzen dizkigun  
kolore eta paisaiak bertatik  
bertara ezagutzeko aukera  
izan genuen: pagadiak, orbela,  
onddo eta perretxikoak, ardi,  
zaldi... eta Tuturre gainak  
eskaini zigun paisaia mugaga-  
bea. Gure bisitaldiaren lekuko,



Basoan galdu eta  
gero  
gu bihurtu gara ero  
iritzi gara Tuturrera  
eta  
Ez dago batere  
bero.

Hemen utzitako  
koplak,  
Usurbildarrak eka-  
rriak,  
DBH 2ko ikasleen-  
gandik  
har bitza bisitariak.

Etorri Aralarrera  
bertan ondo pasa-  
tzera,  
Tuturrera igo eta

gero  
ez dugu joan nahi  
etxera.

Gaurkoz izan dugu  
nahiko  
egun ona pasatzeko,  
jolastu eta etxera  
goaz  
berriz ere itzultze-  
ko.

Aralarrera gatoz  
denok usurbildik,  
mendizale guztiok  
abiatuz handik.  
Tuturre igotzera  
hasiz guardetxetik,  
trikuharria ikusiz  
pagadi artetik,

lekurik ederrena  
hau da Euskaditik!

Tontorrera abiatu  
goardetxe ondotik,  
pagadi, lokatz, har-  
katz  
eta belarditik,  
erdi hilik atera  
basoen erditik,  
Euskadi polita da  
Tuturre gainetik.

Usurbilgoak gara  
ta herritik alde,  
(bis)  
lan egin eta gero  
ai! Tuturren gaude.  
(bis)  
Han goiko lekukoa

## Bilatu sei ezberdintasunak !!

Egilea: LUMA, O.E.



# Lehiaketa !!



Fotos Destello,  
Udal fototeka 1953.07.02

**ARGAZKIAN AGERTZEN DEN PERTSONAREN IZENA ETA BI ABIZENAK NAHI DITUGU ETA BERE JAIO TERRIA. EZETZ ASMATU?**

Saria: "Gaizkileen faktoria" liburua, Alberto Barandiaran (EGUNKARIA).

## Aurreko lehiaketaren erantzuna !!



Aurreko alean galdetzen genuen: esango al zeniguke zer instrumentu ari den jotzen argazki honetako pertsonaia?



Erantzuna: Dultzaina.

# Hitz gezidunak !!

## ● Usurbilgo eliza

	Penagarri	▼		Oinez abiatu	▼		Junta-gailua	▼		Gipuzkoa-ko hiria	▼		Txori mota
	●			Sobera			Ate			Oso			
		▶		▼			▼			▼			▼
	Amodio	▶											
	Lanpostua												
Dozena bat gehi bi	Gizon izena	▶	▼					Zintzoa	▶				
Zuhaitz mota	Ipar., adorea							Mendiko atea					
▶					Asiako estatua	▶		▼				Kontso. bikoitza	▶
					Bokala							... eginda, mozkortuta	
Bizkaiko mendia		▶			▼		Erabat larrituta	▶					
Zama							Harriak						
▶													
					1000	▶	▼	Bokala	▶		Oxigenoa	▶	
					Noka, du			Nitrogenoa			Areago		Momentu
Lau zatitan puskatu		▶			▼								▼
Laiekin lan egiten du													
▶								Fruitu mota	▶				
								Bokala					
Arabako alderdia		▶						▼		Hitz	▶		
			Perukoa	▶									

Hitz jokoan egilea: LUMA, O.E.

### Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

\* Astegunetan bakarrik

### Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.45	08.05		08.30
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05	09.00	09.30
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25		23.15	23.35	00.00
00.00		00.25	00.45		01.15	01.35	02.00
02.00		02.25	02.45		03.15	03.35	04.00
04.00		04.25	04.45		05.15	05.35	06.00
06.00		06.25	06.45				

\*\*Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauzez      Astegunetan larunbat lanegunetan

## Goardiako farmaziak

### Abenduak 5, osteguna

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: Bulnes Exeberri, B Florida Hernani

### Abenduak 6, ostirala

E: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte  
G: Chucla, Kardaberaz, 48 Hernani

### Abenduak 7, larunbata

E: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte  
G: Diaz Kale Nagusia, 19 Andoain

### Abenduak 8, igandea

E: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte  
G: Diaz Kale Nagusia, 19 Andoain

### Abenduak 9, astelehena

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 Hernani

### Abenduak 10, asteartea

E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Exebeste Elkano, 2 Hernani

### Abenduak 11, asteazkena

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte  
G: Bilbao Urbietan, 7 Hernani

### Abenduak 12, osteguna

E: Urbistondo San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: Diaz Kale Nagusia, 19 Andoain

### Abenduak 13, ostirala

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: Elizondo Zumea kalea, 30

### Abenduak 14, larunbata

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: Gorospe Rikardo Arregi, 12 Andoain

### Abenduak 15, igandea

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: Gorospe Rikardo Arregi, 12 Andoain

### Abenduak 16, astelehena

E: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte  
G: Zatarain Arteta kalea, z/g Andoain

### Abenduak 17, asteartea

E: Urbistondo San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: Gorospe Rikardo Arregi, 12 Andoain

### Abenduak 18, asteazkena

E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Ansa Ondarreta, Andoain

### Abenduak 19, osteguna

E: Rodriguez Kale Nagusia, 42 Lasarte  
G: Arzallus Aita Larramendi, 16 Andoain

### Abenduak 20, ostirala

E/ G: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte

E: egunez. G: gauzez (21:00etatik 09:00etara).  
E/G: Egunez eta gauzez

## Zubieta-Donostia TST autobusak

### ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia  
7:55\*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35\*(T)/ 19:15(T)

### Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)  
7:15\* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45\*/18:45

### LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

### Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

### JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia  
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

### Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)  
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

\* Eskola egunetan  
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

## Datorren Noaua!

### Abendua

Ar.	Ar.	Az.	Ost.	La.	Ig.
					1
2	3	4	5	6	7 8
9	10	11	12	13	14 15
16	17	18	19	20	21 22
23	24	25	26	27	28 29
30	31				

● Hurrengo aldea

## Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiardo kiroldedia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

## Oharrak



### ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. Telf: 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- Aginagan duplex bat salgai, 65 metro karratuko solairuko terraza eta garaje handia. 41 milioi pezeta. 943 36 62 60.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Etxe-Aldian pisua salgai. Argitsua eta bista ederrak. Telf: 943 360 754.
- Pisu bat alokatu nahi dut. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.

### SALEROSKETA / GARAJEAK

- Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. 26.821 eurotan salgai. Deitu 666 646 847 zerbakira.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauetz. 943 371447 (Belen).
- Pertsona bat eskaintzen da arratsaldez bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

#### Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zerbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefontxoak: 943 361 216/ 943 370 645.

## Txerrimunik ordainetan



- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 2 haurrak zaintzeko, goizeko 7:00etatik 11:00era neguan, eta goizeko 7:00etatik 13:00era udaran. Interesatuak 943-370289 telefonora deitu, 19.30tatik aurrera.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaudete, deitu 943 36 00 80 telefonora.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zerbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Mahaspildegia elkarteko bazkide plaza salgai, 601 eurotan. 943 36 27 32, Txitxo.
- Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- 100 litro esne pilatzeko eta fresko mantentzeko "Etxe-hotz" markako tankea eta behiak jeisteko "Euromilk" markako motorra salgai daude. 943 364 542 (Felix, Nekane).

- Furgoneta Ford Transit saltzen dut. telefonoa: 943 361 115.

- Aixam autoa salgai (ez du gida-baimenik behar). 943 55 08 47.

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 2 haurrak zaintzeko, goizeko 7:00etatik 11:00era neguan, eta goizeko 7:00etatik 13:00era udaran. Interesatuak 943-370289 telefonora deitu, 19.30tatik aurrera.

- Usurbilgo frontoian egurrezko patinete txiki bat galdu da. Aurkitzen duenak mesedez kiroldegiko tabernan utzi edo deitu dezala 943 366 953 telefonora.

- Urte-zahar gaupasarako DJak behar ditugu. Deitu 943 371951 telefonora. Usurbilgo Udala.



#### Zorionak Eneko!

Denbora pasa ahala, etxeko txapelduna handitzen ari zaigu. Iadanik 5 urte pasa direnean, zorte on etxekoan partez!



#### Zorionak Jon!

Abenduaren 6an 10 urte beteko dituzu, oso ondo pasa dezazula espero dugu. Muxu handi bat etxekoan partez!



#### Aupa Iñaki!

Hi bezalako loreak gutxi zeudek... Abenduaren 5ean ikusiko gattuk eta zelebrauko diagu hire eguna. Zorionak!!



#### Aupa mutilak!

Zorionak zuen urteak izan dira eta azaroak 3, 14 eta 27an. Muxu mordo bat llargi eta amaren partez.

### HILDAKOAK

#### - Luis Garcia Garcia

2002-XI-26. Usurbil.

#### - Estefania Jimenez Beperet

2002-XI-27. Kalezar (konbentua).

**Txerrimunik ordainetan - Oharrak,**  
doaneko zerbitzuak dira.

Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3  
Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
noaua.k.e@euskalnet.net

### Agenda

#### ABENDUAK 10 - asteartea

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Txokoalde, arratsaldeko 19.00etan.

#### ABENDUAK 11 - asteazkena

- Udalbiltza Eguna. Udaletxea itxita egongo da.

#### ABENDUAK 12 - osteguna

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Santuenea, arratsaldeko 19.00etan.

#### ABENDUAK 13 - ostirala

- "Herriak badaki" liburuaren aurkezpena, 19.00etan udal pleno aretoan.

#### ABENDUAK 14 - larunbata

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Aginaga, goizeko 11:30etan.

#### ABENDUAK 15 - igandea

- Santo Tomas eguna eta azoka.

#### ABENDUAK 17 - asteartea

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Kalezar, arratsaldeko 19:00retan.

#### ABENDUAK 19 - osteguna

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Zubieta, arratsaldeko 19:30retan.


#### ABENDUAK 22 - igandea

- Takolo, Pirritx eta Porrotx, Oiardo kiroldegian, 16:30tan eta 18:30tan. Sarrerak salgai Mahukan, Oiardo kiroldegian eta Benta tabernan. Aurretik, 4 euro. Egunean bertan, 5 euro. Antolatzailea: Argiaren Adiskideak, Usurbilgo Taldea.

#### ABENDUAK 23 - astelehena

- Arau subsidiarioen aurkezpena. Kaskoan, arratsaldeko 17:30retan.

### Literaturaren Txokoa



## "Errautsera arteko sugarra"

Jaiotzez, usurbildarra dugu Imanol Zurutuza idazlea. Baina lau urterekin Araba aldera joan zen eta han bizi da egun. Minez idatzitako liburua da hau. Emaztearen heriotza pairatu behar izan duen idazlearen kontakizuna.



Sentimentalimotik ihesi baina bere biluztasun osoan zirrargarri gertatzen den estilo dotore bezain zehatz batean harilkatuz doa idazlea bere oihala, txatal ugariz osaturiko puzzlea.

Liburu errepikaezina da esku artean duzun hau, kontagaiaren ezinbesteko dramatismoak intentsitate bereziz jantzia eta idazkeraren ederrak arte-lan bihurtua. Errepikaezina baita gizaki bakoitzaren bizitza, errautsera arte irauten duen sugarra.

#### Fitxa teknikoa:

**Liburua:** "Errautsera arteko sugarra"

**Egilea:** Zurutuza, Imanol

**ISBN:** 84-8331-872-5

**Salneurria:** 13,00 euro/ 2.163 pta

### Egin kontu

## Durangoko erromesa

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak 37. edizioa beteko du abenduaren 4etik 8ra bitartean.

Aurtengo gai nagusia Historia izango da. Historia bere atal desberdinetan, literaturan, zineman eta arlo ezberdinetan.

Honakoan, Euskal Liburu eta Disko Azokako argizaiola Labayru ikastegiari emango zaio. 25. urteurrena ospatzen duen urtean.

#### AZOKA ZENBAKITAN

Aldizkariak	15
Argitaletxe komertzialak	44
Diskoetxeak	15
Erakundeak	9
Talde kulturalak	38
Banatzailak	9
Aurrezki kutxak	2
Egunkariak	2
Unibertsitateak	3
Stand-ak	271

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Hauxe duzu publizitatea jartzeko tarte egokia

Noaua!n zure publizitatea jarri nahi baduzu, deitu 943 36 03  
21 telefonora

# SANTO TOMAS AZOKA

*barazkiak  
oilaskoak*

.....

*babarrunak*

*txistorra  
taloak*

*sagardoa*

## ABENDUAK 15



- 9:00-10:30: Babarrun lehiaketarako lizen-ematea
- 11:00: Azoka irekiera eta babarrun lehiaketaren hasiera
- 12:00: Herriko baserrietan egiten den sagardo lehiaketa eta dastaketa

*Goiz osoan zehar txistorra eta talo postuak.*

*Goiza alaitzeaz herriko trikitilariak arduratuko dira.*

- 13:00: Ixabel IIIaren zozketa. Ondoren, babarrun eta sagardo lehiaketen emaitzak eta sarl banaketa.

# USURBILGO OFIZIOAK

## ZURE ESKURA DITUZU

**URDANTZI**

Mugikorra: 649 435475  
649 435476  
Telf: 943 363370 - 943 361439

**ERRAZKIN  
IGELTSERITZA**

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25  
☎ 629 420565 - 649 435470

urki-mitxe@euskalnet.net

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Faxaduen konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**JOSUE**

**ARANZAZISTROKI**

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6  
Kalezar  
943 36 05 50 - 606 37

## ITURGINTZA

**PORTULARRUME**

BAINUKO ALTZARIAK



Telf; 943 36 46 37

**JAVIER ORBEGOZO**

Iturgintza  
Gasa



Berokuntza



Iturgintza, gas eta berokuntza

**JOSEBA  
ARANGU -**

☎ 943 83 00 72

**IÑAKI  
LATAILLADE**

Iturgintza, gas eta  
berokuntza

Mobila: 609 888021

## ESKAIOLAK

**EUGENIO  
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12  
Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

**JOSE ANTONIO  
ELORZA**

Galtzaragaina 2-2B  
Telf 943 37 34 70

## ARROZTEGIAK

**BEREZIARTUA**

Egurra eta egurra-aluminioa  
**LEIHOAK**

Aginaga Telf: 943 37 15 71

**JOSE  
RAMON**

Neurriko altzariak eta sukaldeak  
Errotaberri kalea, 3 Osinalde  
☎ 943 36 14 48 -  
Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI  
IKUTZA**

Ugarte, 4 Kalezar  
Telf eta faxa: 943 37 12

## PINTURAK

**RAMON BARCENI -**

- . Pikor pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze- lanak
- . Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

**FERNANDO  
PINTURAK**

Enpapelaketak eta pinturak  
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

## ELEKTRIZITATEA

**MIKEL IZAGI -**

Goiz-Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 50 95

Gida honetan azaldu  
nahi baduzu, deitu  
943 360321 telefo-